


# Getxo >MEETING<



**Martxoaren 14ko GetxoMEETINGa**

## **ZURE NEGOZIO-EREDUA BERRIKUSI, ALDAKORRA BAITA**

Noizean behin komeni da zure negozioak hartu duen bidearen inguruan hausnartzea. Gure abiapuntua, egindako lorpenak eta ezarri genituen helburuak berrikusi behar dira.

Negozioak organismo biziak dira eta, bizi-zikloa nahiz gure imajinarioa bezala, aldatzen doaz. Izan ere, merkatura eta bidean sortzen diren aukeretara egokitzen dira. Batzuetan inoiz planteatu ez dituzun bideetatik eramaten zaitu inertziak; hori ez dago txarto, baina komeni da une batez gelditu eta orain dugun negozio-eredua islatzea idatziz paperean. Horrela, hobeto ohartuko zara aurrean duzunaz eta helburu berriak ezarri ahalko dituzu, baita erabaki egokiagoak hartu ere.

Kostatzen zaigu ariketa hau egitea. Kostatzen zaigu denbora ateratzea paperaren aurrean jartzeko eta hausnartzeko. «Gure eguneroko bizitzan denbora gehiago ematen dugu premiazko gauzak egiten garrantzitsuak direnak egiten baino», hala adierazi dute Getxo Meeting honetara bertaratu diren batzuek. Era berean, ohikoa da zure negozio-ereduari buruz pentsatzea eta presente izatea; alabaina, paperean islatzea lagungarria da oinak lurrean jarri eta zuretzat benetan garrantzitsua den horretan jartzeko arreta.

Hori dela eta, Business Model Canvas tresna erabili dugu gaurko topaketan; izan ere, horri jarraikiz, enpresaren arlo desberdinak irudikatzen dituzten bederatzi moduluak aztertuz, gure proiektuaren ikuspegi orokorragoa lortuko dugu.

Gure proiektuaren "oraina" aztertu ondoren, komeni da gure ibilbidearen irakaspenak ateratzea: aldaketarik izan bada, aztertzea zergatik gertatu ote diren; gure balio nahiz helburuekin bat gatozen aztertzea, etab. Halaber, interesgarria da helburuak birplanteatzea, agian ez baitira duela urtebete edo urte bi planteatu genituenak.

Oso ondo datorkigu ariketa hau maiz egitea, paperaren aurrean jartzea eta horri aurre egitea kostatzen bazaigu ere. Badaude espazioak non hizpide dugun ariketa beste batzuekin egin ahalko duzun. Horregatik aprobetxatu dugu Getxo Meetingeko espazioa.

Ariketa egin ondoren, ondorio orokorrak atera ditugu, besteak beste aipatzekoa da enpresak sortzeko unean aurreikusitako beharrianen arabera negozioei gehiegizko dimentsionamendua emateko joera dagoela, baina bideak zure negozioa merkatuaren beharrian errealetara egokitzea bultzatzen zaitu.

Gakoa bideari ekitea da.